

Zertarako balio dute eta zertarako erabili ahal dituzu Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak?

Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean estatistiken kontsulta dinamikoa egiteko sistema du.

Δ ZER DA ESTATISTIKEN KONTSULTA DINAMIKOA EGITEKO SISTEMA?

Norberaren intereseko datuen taulak egin ahal izateko aplikazioa da: 100 adierazle baino gehiagoren artean zure interesekoa aukeratzen duzu, eta horretan erabakitzen duzu zein urtetako datua nahi duzun, adinaren edota sexuaren arabera aldeak ikusi nahi dituzun, bai eta Euskadi osoko informazioa edota **Araba, Bizkaia edo Gipuzkoakoa** nahiago duzun ere.

Datuak behera karga daitezke eta zure txostenetan edo proiektuetan **sartu**.

Δ ZELAKO INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU SISTEMA HONEK?

111 adierazleren bilakaera-datuak eskaintzen ditu, zortzi gai-arlotan sailkatuta.

1. BIZTANLERIA ETA FAMILIA
2. HEZKUNTZA
3. LANA
4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA
5. OSASUNA
6. EUSKARA
7. AISIA, KULTURA ETA KIROLA
8. BALIOAK ETA JARRERAK

Jakin dezakezu nolako bilakaera duen **gazteen kopuruak**, zenbat **gazte atzerritar** dauden, zein den **ama** izateko batez besteko adina, zelako **hezkuntza**-maila duten gazteek, zenbatek dakiten **ingelesez** eta **euskaraz** ondo hitz egiten, zein den **langabezia-tasa** eta **okupazio-tasa**, zenbat **lan-istripu** gertatzen diren gazteen artean, zenbatek duten lanaldi partziala edota aldizkako lan-kontratua, zein den, batez beste, **emantzipatzeko adina**, zenbat gazte emantzipatzen diren **alokatutako etxebizitzan**, zenbat kostatzen zaion gazte bati **etxebizitza eskuratzea**, zein den gazteen **jarduera fisikoaren** maila, zenbatekoa den nesken **nerabezaro-haurdunaldien tasa**, zenbat **GIB** infekzio gertatu diren, zein den **sare sozialen erabilera**, zenbat joaten diren ekitaldi kulturaletara, zenbat dauden lonjetan edo **gazte-lokaletan**, zenbatekoa den **etorkizunarekiko konfiantza indizea**, zenbatek egiten dituzten **boluntario-lanak**, zenbatekoa den **politikarekiko** interesa, nola kokatzen diren **erlijio-gaietan**, **sexu**

bereko pertsonen arteko ezkontzari buruz zer deritzoten, zenbatekoa den **emakumeen aurkako indarkeria** tasa, zenbatek **kontsumitzen** duten modu jasagarri edo iraunkorrean, zenbatek erabiltzen duten **bizikleta** beren ohiko joan-etorrietan... eta horrela 111 adierazleetako informazioa jaso arte!!!

Δ ZERTARAKO BALIO DU?

- Zure plan edo proiektuetarako egoeraren **diagnosiak** egiteko.
- Ebaluatzeko **adierazleak diseinatzeko**.
- **Helmugak ezartzeko** eta zure esku-hartzeak izandako **inpaktuaren jarraipena** egiteko.
- Kazetaritza-artikuluak **testuinguruan kokatzeko**.
- Gazteriaren arloan gai zehatzei buruzko **ikerketak egiteko**.

Δ NONDIK DATOR INFORMAZIOA?

Datuak iturri hauetatik datoz:

- ✓ Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako ikerketak.
- ✓ Estatistika-institutuek (Eustat –Euskal Estatistika Erakundea- eta INE - Instituto Nacional de Estadística-) emandako informazioa edo beren webguneetatik ateratakoa.
- ✓ **Eusko Jaurlaritzaren** sail bakoitzak jasotako datuak.

Δ ETA ARAZORIK BADUT APLIKAZIOAREKIN (badakigu zelakoa den informatika) EDOTA BILATZEN DUDAN INFORMAZIOA EZ BADUT AURKITZEN?

Jo ahal duzu gugana, Gazteen Euskal Behatokira, telefonoz edota korreo elektronikoz. Ahalik eta azkarren izango duzu gure erantzuna!

94 403 16 45 gaztebehatokia@euskadi.eus